

1. ARAU OROKORRAK

- 1.1. Areto hauek erabiltzeko arauak betetzeko konpromisoa hartzen du bere gain eskatzaileak, eta orobat indarrean dauden lege-arauak —edukiera, segurtasuna, higiena eta osasungarritasuna, autore-eskubideak, eta ekitaldiari eragin diezaioketen gainerakoak—.
- 1.2. Gutxienez 12 egun lehenago kudeatu beharko dira erreserbak, eta 16 egun lehenago antolakuntza konplexua bada.
- 1.3. Erreserbak bertan behera uztekoan, idatziz egin beharko da. 12 egun baino gutxiago falta direla egiten bada, erreserbatutako areto edo lekuaaren alokairuaren % 25 ordaindu beharko da.
- 1.4. Europa Biltzar Jauregiko behatokia, atondoak eta igarobideak eta Goiuri Jauregiko eskailera-buruak, eremu ojbala eta igarobideak ez dira tasari lotuak egongo kafe-zerbitzuak, luncha eta antzekoak eskaintzeko baliatzen direlarik. Era berean, Europa Jauregiko atondoak eta Goiuri Jauregiko eskailera-buruak, eremu ojbala eta igarobideak ez dira tasari lotuak egongo akreditazio-leku gisa baliatzen direlarik.
- 1.5. Aurkitu zen egoera berean geratu beharko du instalazioak, eta antolatzaileak bere gain hartu beharko ditu kaltetu edo desagertzen diren materialak konpondu edo ordezteak berekin dakartzan gastuak, baita beharrezko gertatzen diren aparteko garbiketak ere.
- 1.6. Ingurumenaren eta hondakinen kudeaketaren alorrean Jauregian ezarrita dauden jarraibideak errespetatzeko konpromisoa bere gain hartu beharko du antolatzaileak.

2. ORDUTEGIAK, LANGILEAK ETA IKUS-ENTZUNEZKO EKIPAMENDU TEKNIKOAK

- 2.1. Eguneko ordutegian (8:00etatik 22:00etara Europa Biltzar Jauregiaren kasuan) Jauregiak irekitzeko langileak prezioan sartuta daude. Goiuri Jauregiaren kasuan, lanorduetan, astelehenetik ostiralera baina ez asteburuetan eta jaiegunetan.
- 2.2. Egun erdiko ordutegia 8:00etatik 14:00etara edo 16:00etatik 22:00etara izango da.
- 2.3. Prezio horietan ez da sartzen lekua 22:00etatik aurrera edo 8:00ak baino lehenago erabiltzea.
- 2.4. Gaueko erreserba bereziek, hau da, 22:00etatik 8:00etara bitartekoek, orduko 329,50 euroko tarifa berezi bat izango dute Europa Biltzar Jauregian eta orduko 120,80 eurokoa Goiuri Jauregian; Jauregiako antolakuntza premiengatik (muntatze edo desmuntatze lanak egiteko) hitzarmen bereziren bat badago, ez dira tarifa horiek aplikatuko.
- 2.5. Areto bakoitzean dagoen ikus-entzunezko ekipamendu teknikoa prezioan sartua dago, baita ikus-entzunezko baliabide horietaz arduratuko den teknikaria ere, eguneko ordutegian (8:00etatik 22:00etara Europa Jauregian). Goiuri Jauregian astelehenetik ostiralera, asteburuetan eta jaiegunetan, aretoetan eskuragarri dagoen ikus-entzunezko ekipamendua erabiltzea eta gainbegiratzea, bai eta teknikari batek Martín de Salinas aretoko ikus-entzunezko baliabideak erabiltzen laguntzea ere.
- 2.6. Goiuri Jauregian, asteburuetan, jaiegunetan eta gaueko ordutegian irekitzekotan, ekitaldi berezietarako izango da, eta horrek berekin ekarriko du jardunaldiaren antolatzaileak bere gain hartzea jauregiak zerbitzu horiek hitzartuta dituen enpresek ateak irekitzeko jartzen dituzten langileei (bi lagun) eta ikus-entzunezkoen teknikariari dagozkien kostuak, azken hauek beharrezkoak izanez gero.
- 2.7. Gaueko erreserba bereziek, hau da, 22:00etatik 8:00etara bitartekoek, orduko 329,50 euroko tarifa berezi bat izango Ekitaldiaren ezaugarrien arabera, Kongresu Zerbitzuak beharrezko zerbitzuak gehitzea eskatu ahal izango du. Zerbitzu horiek ekitaldia antolatzearen kontura emango dira beti, eta zerbitzu horiek egiteak eragindako kostuak ordainduko dira.
- 2.8. Auditorioko ikuskizunen kasuan, nahitaezkoa izango da areto-langileak kontratatzea (gutxienez bi pertsona solairu bakoitzeko), baita aretoko arduradun bat ere, guztiak enpresa esleipendunekoak. Langile horiek jauregitik kudeatuko dira, eta ekitaldiaren antolatzaileek ordainduko dituzte dagozkien kostuak.
- 2.9. Ordenantzan jasotzen diren hobarietakoren bat badagokio jarduerari —edo tasa ordaintzetik salbuetsita geratzea—, sarrerarako langile lagungarri bati edo gehiagori dagozkien kostuak bere gain hartu beharko ditu antolatzaileak, baita ikus-entzunezkoen arduratuko den langile lagungarri bati edo gehiagori dagozkienak ere, jauregiko arduradunek horien beharra dagoela uste badute. Areto hauetakoren bat erabiltzen denean beharko dira langile lagungarri horiek: Fco. de Vitoria auditoriuma, María de Maeztu auditoriuma —kasu horietan, langile lagungarri bat edo gehiago beharko dira une horretan erabiltzen ari diren hiru solairuetako bakoitzeko sarrerarako—, Green Capital aretoa, Almudena Cid aretoa, Estibalitz aretoa, Gasteiz aretoa eta Martín de Salinas aretoa (Goiuri Jauregia). Jauregian zerbitzu hori esleitua duten enpresek hornituko dituzte langile horiek, kasuan-kasuan kontrataziolehiaketan ezarritako prezioen arabera.

3. IKUS-ENTZUNEZKOEN IDAZKARITZA TEKNIKOAK

- 3.1. Ekitaldiaren antolatzaileak behar besteko aurrerapenaz emango dizkio ikus-entzunezkoen idazkaritza teknikoari aurkezpenen eskaleta eta materialak.
- 3.2. Ikus-entzunezkoen idazkaritza teknikoaren egoitza Maria de Maeztu areto osagarria izango da auditorium honetarako, eta Angulema aretoa izango da eraikinaren iparraldeko aretoetarako.
- 3.3. Antolatzaileak areto horietan jarri diren ordenagailuetan kargatuko ditu aurkezpenak, eta bera arduratuko da aurkezpenak ekitaldia hasterako prest egoteaz.
- 3.4. Biltzar Jauregiak zuzeneko komunikazio-sistema jarriko du auditoriumeko agertokiaren eta ikus-entzunezko baliabideen ganberaren artean, ekitaldian bertan jazo daitekeen edozein gertakariaren berri emateko.

4. INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA INFORMATIKOEN PLANA

- 4.1. Biltzar edo ekitaldi konplexuak antolatzen dituzten erakundeek INSTALAZIOEN PLANA eman beharko diote ekitaldiaren kudeatzaileari.
- 4.2. Kudeatzaileak plan hori Teknologia Berrien sailari bidaliko dio, eta azaldutako premiei erantzuteko hainbat aukera baloratuko ditu sail horrek.
- 4.3. Denbora gutxira, Teknologia Berrien sailak proposamen bat bidaliko dio jauregiko kudeatzaileari, eta proposamena ikus-entzunezkoen taldeari helaraziko dio azken horrek.
- 4.4. Kudeatzaileak, ikus-entzunezkoen taldearekin batera, enpresa instalatzaileari jakinaraziko dio proposamena.

5. MUNTATZEA ETA DESMUNTATZEA, KARTELAK, APAINGARRIAK, SEINALEZTAPENA ETA ARETOAK

- 5.1. Muntatze eta desmuntatze erreserbak erabili beharreko aretoak hartuko ditu, baita lan horiek direla eta beste ekitaldi baterako erabili ezingo direnak ere.
- 5.2. Antolatzaileak eskatutako aretoak muntatzeko lehen egunak eta desmuntatze egunak ehuneko 25eko murrizketa izango dute, aplikatu beharreko tasan.
- 5.3. Aretoak altzari finkoak edo erdi-finkoak baditu, 15 egun lehenago eskatu beharko da horien antolamendua aldatzeko berariazko aurrekontua —antolatzailearen kontura—.
- 5.4. Jauregietako ohiko dekoratuak erabat aldatzeak kostu gehigarria ekarriko du berekin: erreserbatutako aretoaren alokairu-tasaren ehuneko 25a.
- 5.5. Atarteetan eta igarobideetan apaingarriak, standak, catering-zerbitzuak edo beste edozein elementu jartzekotan, berriazko baimena eman beharko dute alde aurretik Jauregiko arduradunek, eta orobat errespetatu beharko dira une horretan Jauregian suertatzen diren ekitaldietara sartu behar duten pertsona guztien igarobide naturalak.
- 5.6. Seinaleztapena kanpoko euskarrien gainean egingo da; ezingo da inongo elementurik itsatsi horma, ate, beira eta altzarietan.
- 5.7. Muntatze lan guztiak ikuskatzeko konpromisoa hartu beharko du bere gain antolatzaileak, baita erabakitzen diren ordutegi eta baldintzak betetzeko ere. Standak, agertokiak eta antzekoak muntatzen badira, zoruak behar bezala babesten direla bermatu beharko du antolatzaileak, elementuak muntatu aurretik.
- 5.8. Aretoetako mahai, atril, zutabe, horma eta ateetan kartelik, pankartarik eta bestelakorik ez itsasteko konpromisoa hartu beharko du bere gain eskatzaileak, baita Jauregien barruan erretzen ez uztekoa eta Jauregiko arduradunei ekitaldirako kontratatutako enpresa eta zerbitzuen (pankartak, cateringa, loreak...) berri ematekoa ere.

6. CATERING ZERBITZUA

- 6.1. Aldez aurretik hala hitzartzen delarik eta erregistratutako catering enpresa batek hornitzen dituelarik baino ezingo dira janari eta edariak hartu Jauregien barruan, edo halakoak hornitzen dituzten makinetatik hartuta, horretarako dagoen lekuan.
- 6.2. Biltzarreko catering enpresak zoru babesa bermatu beharko du, kaltetu litzakeen jardueraren bat gauzatzekotan delarik: garagardo-txorrotak muntatu, aldi baterako barrak eta abar.

Biltzar eremuen erabilera-arauak

Europa Biltzar Jauregia
Goiuri Jauregia

Telefonoa: 945 16 15 20
www.vitoria-gasteiz.org/biltzarrak
congestur@vitoria-gasteiz.org

- 6.3. Jantoki, kafe-leku, dastaleku edo antzeko gisa erabilitako lekuan oinarrizko garbiketa egin beharko du catering enpresak. Eta, bereziki, catering jarduerak sortutako zaborra erretiratzear aztertu beharko du. Era berean, gela lagungarri gisa erabilitako espazioa ere garbitu beharko du.
- 6.4. Ingurumenaren eta hondakinen kudeaketaren alorrean Jauregian ezarrita dauden jarraibideak errespetatzeko konpromisoa beren gain hartu beharko dute catering enpresek.